



etxe  
pare  
EUSKALINSTITUTUA  
INSTITUTOVASCO  
BASQUEINSTITUTE

2017  
MEMORIA

# Sarrera

## Introducción

2017a aldaketa urtea izan da Etxepare Euskal Institutuan. Hilabete gutxiren buruan zuzendaritza talde osoa berri da. Miren Arzalluz zuzendari nagusi berria urtarrilean hasi zen lanean, 2010. urtean martxan jarri zenetik Institutuaren gidaritzan aritu zen Aizpea Goenaga ordezkatzuz. Aste batzuk lehenago Irene Larraza Kultura Sustatu eta Hedatzeko zuzendari izendatu zuten –ordura arte bete gabe egon zen postua– eta martxoan Garbiñe Iztueta hautatu zuten Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendari berri.

Honenbestez, sendotzean eta hazkunde kualitatiboan oinarritutako aldi berri bati eman zion hasiera Etxeparek. Datozen urteetako ardatzak apirilaren 12an Zuzendaritza Kontseiluak egindako bileran onartutako 2017-2010 Plan Estrategikoan daude jasota.

Egungo testuingurutik abiatuta, planak lau ardatz estrategiko ezartzen ditu. Helburua da euskal sortzaileen eta kultur sektorearen onurarako, epe ertainera begira, Etxepare Institutuaren gidaritzapean, atzerrian kultur ekintza koordinatuagoa, ikusgarritasun handiagokoa eta eraginkorragoa garatzea. Era berean, herrialde irudia gure sortzaileek duten sormen mailaren pare jarri nahi da.

El año 2017 ha sido un año de cambio en el Instituto Vasco Etxepare ya que, de forma escalonada, pero con pocos meses de diferencia, se ha renovado por completo el equipo de dirección. Miren Arzalluz, nueva Directora general, se incorporó en enero sustituyendo a Aizpea Goenaga que había estado al frente del Instituto desde su puesta en marcha en 2010. Unas semanas antes, Irene Larraza era elegida Directora para la Promoción y Difusión de la Cultura –puesto que había estado vacante hasta la fecha– y el mes de marzo Garbiñe Iztueta era nombrada Directora para la Promoción y Difusión del Euskera.

Empezaba así una nueva etapa de consolidación y crecimiento cualitativo del Instituto cuyas líneas de actuación para los próximos años se plasmaron en Plan Estratégico 2017-2020 aprobado por el Consejo de Dirección en la reunión celebrada el 12 de abril.

El plan establece cuatro líneas estratégicas de actuación que, partiendo del contexto actual, marcan el rumbo hacia un futuro a medio plazo en el que el Instituto Vasco Etxepare lidera una acción cultural exterior más coordinada, visible y eficaz que redundará en beneficio de los/las creadores/as vascos/as y el sector cultural, así como en una imagen de país a la altura de su capacidad creativa.



*Koordinazioa eta elkarlana* du izena lehen ildo estrategikoak eta, hein batean, Etxepare Euskal Institutuaren xede berdinak dituzten eragileekin koordinazio eta elkarlan eraginkorra lortzeko jarraitu beharreko bidea markatzen du. Horrek eskatzen du eragile horiek eta koordinazio eremuak identifikatzea, baita lan eta komunikazio-dinamika eraginkorrak ezartzea ere.

Lehentasunen artean dago Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailarekin koordinazio instituzional eta funtzional eraginkorra ezartzea, Etxepare Euskal Institutua baita Sailak kultur diplomaziarako eta euskara eta euskal kultura nazioartean zabaltzeko duen tresna nagusia.

2017. urtean zenbait proiektu landu dira elkarrekin, Creadis 3 esaterako. Egitasmo honetan Europako sei lurraldek dihardute elkarlanean, 2021era arte, politika publikoen agendak parekatu eta Kultura eta Sormen Industrien (KSI) garapen berritzailea lortu ahal izateko ekosistema aproposa sortzeko helburuarekin. Euskadik zuzentzen duen proiektu honen testuinguruan lau lan-saio burutu dira aurten Europako bazkideekin.

Bajo el título de *Coordinación y colaboración*, la primera línea estratégica marca el camino a seguir para establecer una coordinación y colaboración eficaz con otras entidades que comparten, en parte, los mismos objetivos que el Instituto. Ello implicada identificar estas organizaciones, identificar áreas de coordinación y establecer con ellas dinámicas de trabajo y comunicación fluidas.

Entre las prioridades se sitúa establecer una coordinación institucional y funcional eficaz con el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, que tiene al Instituto Vasco Etxepare como principal herramienta de diplomacia cultural y de promoción y difusión internacional del euskera y la cultura vasca.

En 2017 ya se han abordado proyectos en común como la iniciativa europea Creadis3 que vincula a seis territorios de la UE y que tiene como fin alinear las agendas de las políticas públicas para generar un ecosistema que contribuya al desarrollo innovador de Industrias Culturales y Creativas (ICC). En el contexto de este proyecto liderado por Euskadi, que tiene como horizonte el año 2021, se han realizado cuatro sesiones de trabajo con los socios europeos participantes.

Eusko Jaurlaritzako beste sail garrantzitsu batekin ere estutu da harremana, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin, hain zuzen. Euskadiren diplomaziaren buru dira eta Euskadi-Basque Country 2020 nazioartekotzeko strategiaren arduradun. Etxepare Euskal Institutua da estrategia horren ardatz kulturala garatzeko eragile nagusia eta, ondorioz, koordinazio taldean sartu da aurten. Era berean, Urkullu lehendakariak Quebec-era egin duen bidaiari kultura eta kultur politiken agenda diseinatzen lagundu du Institutuak.

Bestalde, bilerak egin dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiekin kultura nazioartekotzeko ekintzak elkarrekin burutu ahal izateko oinarriak jartzeko asmoz. Aipatzekoa da, baita ere, egitasmu zehatzak burutu direla euskararen eremu geografikoan kokatuta dauden beste eragile batzuekin, hala nola, Ipar Euskal Herriko Euskal Kultur Erakundea (EKE) eta Nafarroako Gobernuaren Bianako Printzea Erakundea. Aurreikusita dago azken hau laster sartzeara Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen testuinguruan martxan jarritako Aquitaine.eus mugaz gaindiko kultur lankidetzarako proiektuan.

Plan estrategikoaren bigarren ardatzak, *Hazkunde kualitatiboa*, orain arte sortutako sareen sendotze eta optimizazioan jartzen du arreta. Halaber, ongi planifikatutako hazkunderaren garrantzia azpimarratzen du eta etengabeko ebaluazioa eta hobekuntzarako sistemak ezartzen ditu, adierazleen eta beste hainbat tresnaren bidez.

Batetik, unibertsitate sarea sendotzeko pausoak eman dira. Euskara eta euskal kultura eskolak emateko irakasleak hautatu dira eta, lehen aldiz, programa akademikoak burutu dira Boiseko Estatu Unibertsitateko Eloise Garmendia Bieter katedran eta Bordeaux-Montaigne Unibertsitateko Jean Haritschelhar katedran.

Bestetik, kulturaren sustapen ekintzak berrikusi dira. Ekintza hauek lau lan ildo nagusiren bidez bideratzen dira: sortzaile eta kultura profesionalentzako diru-laguntza deialdiak; gure KSlek nazioarteko azoka eta topaketa profesioetan parte har dezaten laguntzea; bertako eragile eta entitateen nazioartekotze ildoak laguntzea; eta lankidetzara egitasmu zehatzak ezartzea nazioarteko eragileekin nazioarteko programazio eta ekitaldietan gure sortzaileek parte har dezaten.

También se ha estrechado la coordinación con otro departamento clave del Gobierno Vasco como es la Secretaría General de Acción Exterior, que lidera la diplomacia de Euskadi así como la Estrategia de Internacionalización Euskadi-Basque Country 2020. El Instituto Vasco Etxepare es uno de los actores principales en el desarrollo del eje cultural de dicha estrategia y, como tal, se ha incorporado al grupo de pilotaje. Asimismo, ha participado activamente en el diseño de la agenda cultural y de políticas culturales en el viaje que el lehendakari Urkullu ha realizado a Quebec.

Por otra parte, el Instituto ha mantenido reuniones con las diputaciones de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa para establecer las bases para desarrollar conjuntamente acciones de internacionalización de la cultura. Cabe mencionar, a su vez, el desarrollo de iniciativas concretas con otras entidades situadas en el ámbito geográfico del euskera como son Euskal Kultur Erakundea (EKE) del País Vasco Norte y el Gobierno de Navarra, a través de la Institución Príncipe de Viana. Está previsto que esta última se incorpore en breve al proyecto de cooperación cultural transfronteriza Aquitaine.eus, que se desarrolla en el marco de la Euroregión Nouvelle Aquitaine-Euskadi-Navarra.

El segundo eje estratégico del plan, *Crecimiento cualitativo*, sitúa el foco en la consolidación y optimización de las redes creadas hasta el momento y en la planificación ordenada del crecimiento futuro, estableciendo sistemas de evaluación continua y de mejora a través de indicadores y otras herramientas.

En el año 2017 se ha consolidado la red universitaria con la selección de profesorado para impartir asignaturas de euskera y cultura vasca en siete universidades y con la organización, por primera vez, de sendos programas académicos en las cátedras Eloise Garmendia Bieter en la Universidad Estatal de Boise y Jean Haritschelhar en la Universidad Bordeaux-Montaigne.

Por otra parte, se han revisado las acciones de promoción de la cultura que se desarrollan a través de subvenciones para creadores/as y profesionales de la cultura, el apoyo a la participación de nuestras ICC en foros y encuentros profesionales internacionales, el apoyo a las líneas de internacionalización de agentes y entidades locales, y el establecimiento de programas de colaboración con agentes y entidades internacionales para abrir la puerta a la participación vasca en programaciones y eventos de todo el mundo.

Azpimarragarria da aurten euskal kultura sustatu eta hedatzeko jarduerak garatzeko diru-laguntza berreskuratzea. Deialdi hori nazioartekotzeko aukera baliotsua da ohiko deialdietatik kanpo geratzen diren profesional eta kultur eragileentzat: tradizioko dantza taldeak, abesbatza elkarteak, diseinuaren edo modaren profesionalak, etab. Halaber, euskarazko proiektuen nazioartekotzea errazteko zabalkunderako deialdietako (musika, dantza, antzerkia, arte plastikoak eta ikusizkoak) balorazio irizpideetan euskarak duen pisua handitu da (%5etik %10era). Horri esker euskarazko proiektu ia denek jaso dute nazioartekotzeko laguntza.

Institutuak Kultura eta Hizkuntza Politika sailarekin elkarlanean jarraitu du gure kultura eta kultur industriak nazioarteko azoka eta merkatuetan egon daitezen (73 mundu osoan zehar) eta ekitaldi horien programazioetan tokia izan dezaten.

Bestalde, aipatzea komeni da Institutuak bertako kultur eragileekin elkarlanean jarduten duela euren nazioarteko jardueran laguntzeko edo elkarrekin nazioarteko ekintzak burutzeko. Era berean, nazioarteko eragileekin ere egiten du lan euskal kulturarentzat leihor berriak irekitzeko. 2017. urtean 57 egitasmo sustatu ditu -26 euskararen eremu geografikoan kokatutako eragileekin eta 27 atzerriko eragileekin- eta 88 ekintza zehatz burutu dira euskal kultura sustatzeko eta hedatzeko. Horietatik %65a euskaraz. Bertako eragileen artean ADDE, Galtzagorri Elkarte, EIZIE, Eiken, Musika Bulegoa, Bertsozale Elkarte, Euskadiko Filmategia, Tabakalera, Artium, Azkuna Zentroa edo Topic aipa genitzake, besteak beste. Kanpoko eragileen artean berriz FIL Guadalajara, Literature Across Frontiers, Transpoesie, Brussels Fashion Week edo Dokumenta 14, adibidez.

En este sentido, cabe destacar la recuperación de la subvención para el desarrollo de actividades de promoción y difusión de la cultura vasca, que supone una oportunidad valiosa para agentes culturales que no pueden optar a las subvenciones habituales: agrupaciones de danza tradicional, coros, profesionales de la moda y el diseño, etc. También se han mejorado los mecanismos para favorecer la internacionalización de proyectos de creación en euskera aumentando su peso (del 5% al 10%) en los criterios de valoración en las convocatorias de para difusión de la cultura (música, danza, teatro, artes plásticas y visuales). Gracias a ello se ha conseguido que prácticamente todos los proyectos de creación en euskera hayan recibido apoyo.

El Instituto ha continuado trabajando con el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco para que nuestra cultura e industrias culturales estén presentes en mercados y ferias profesionales (más de 73 diferentes en todo el mundo) así como en las programaciones de estos encuentros.

A su vez, es relevante subrayar que el Instituto trabaja en estrecha colaboración con agentes culturales locales para apoyar, o desarrollar conjuntamente sus acciones de internacionalización, al tiempo que colabora con entidades culturales del exterior para abrir y consolidar escaparates para la cultura vasca. En el año 2017 se han desarrollado 57 iniciativas -26 de ellas con agentes del ámbito geográfico del euskera y 27 con agentes del exterior- que han tenido como resultado 88 acciones concretas de promoción y difusión cultural, de las cuales el 65% ha sido en euskera. Entidades como ADDE, Galtzagorri Elkarte, EIZIE, Eiken, Musika Bulegoa, Bertsozale Elkarte, Filmoteca Vasca, Tabakalera, Artium, Azkuna Zentroa o Topic son algunos de los agentes locales con los que Etxepare ha trabajado este año. A nivel internacional podemos mencionar a la FIL Guadalajara, Literature Across Frontiers, Transpoesie, Brussels Fashion Week o Documenta 14, por citar algunos.



Plan estrategikoaren hirugarren ardatza *Ikusgarritasuna* da. Helburua da datozen urteetan inpaktu eta ikusgarritasun handiagoa lortzeko estrategiak garatzea. Nazioarteko programazio eta zentroetan Euskal Leihoak sortzeak (Le Rocher de Palmer, London Spanish Film Festival, , Fest'Arts Libourne, etab.) emaitza onak eman dituzenez aurten leiho berriak ireki dira Frankfurt Film Museum, Suns Festival edo Sismograf bezalako tokietan. Era berean, 2019an Eskozian ikusgarritasun handiko ekintzak burutzeko lana hasi da. Azkenik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin elkarlanean, eta Euskadi-Basque Country 2020 estrategiarekin bat eginez, marka estrategia bat garatzen hasi da Institutua, euskal kultura atzerrian modu kreatibo eta nabarrian erakutsiko duena. Estrategia honek balioko du atzerrian egiten diren kultur ekintzen eragina optimizatzeko eta gure diskurtsoa eta marka arkitektura ordenatzeko.

El tercer eje del plan estratégico, *Visibilidad*, sitúa la atención en desarrollar estrategias para obtener un mayor impacto y visibilidad en las acciones de difusión de la cultura. La vía de crear Ventanas Vascas en programaciones y centros internacionales (Le Rocher de Palmer, London Spanish Film Festival, Fest'Arts Libourne, etc.) llevada a cabo hasta la fecha se ha mostrado eficaz por lo que en 2017 se han abierto nuevas ventanas en contextos como el Frankfurt Film Museum, Suns Festival o Sismograf. A su vez, se ha comenzado el trabajo para desarrollar varias acciones de impacto en Escocia en 2019. Por último, en coordinación con el Departamento de Cultura y Política Lingüística, y en línea con la Estrategia Euskadi-Basque Country 2020, se ha comenzado a desarrollar una estrategia de marca para la cultura vasca que la represente de forma auténtica, creativa e inequívoca, optimice el impacto de nuestra actividad cultural exterior y ordene nuestro discurso y arquitectura de marcas.



Plan estrategikoaren laugarren ildoari dagokionez, *Kultur Diplomazia*, azpimarratzekoa da Etxepare Euskal Institutuaren parte hartzea –Irene Larraza Kultura Sustatu eta Hedatzeko zuzendariaren bidez– abenduaren 12an Milanen antolatu zen Europako Kultura Foroko osoko bilkuran. Bi urtero antolatzen den erreferentziatzko topaketa honetan Europako kultura eta sormen industrien alorreko eragile nagusiak elkartzen dira Europako Batasunaren kultur politika eta egitasmoak eztabaidatu, Europa mailako kultur lankidetzaz estutu eta kultur diplomazian sakontzeko.

Bestalde, EUNIC Brussels-eko (European Union National Institutes for Culture) kide elkartu den heinean, Etxeparek kultura eta gizartea lotzen dituzten mugaz gaindiko proiektuetan hartu du parte (Fête de la BD, Transpoesie, etab.), baita Europako kultur diplomazia eta lankidetzaz politiken definizio eta aplikazioan prozesuetan ere.

Gainera, Institutua Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen testuinguruan gauzatzen den Aquitaine.eus proiektuaren bultzatzaile da. Euskal Kultur Erakundearekin (EKE) batera gidatzen duen proiektu honen helburua da Euskadiko eta Akitania Berriko kultur sortzaile eta eragileen mugaz gaindiko elkarlana eta harremana sustatzea, Ipar eta Hego Euskal Herriko artistei Frantziako eskualde honetan ikusgarritasuna emateko.

Laburbilduz, 2017an Institutuak euskal kulturaren enbaxadore lanetan jarraitu du, euskara eta euskal sorkuntza sustatzeko konpromisoari helduz. Ondorengo orrialdeetan urtean zehar egindako lanaren xehetasunak daude jasota.

En lo que respecta al cuarto eje del plan estratégico, *Diplomacia cultural*, hay que subrayar la participación del Instituto Vasco Etxepare, a través de su Directora de Promoción y Difusión de la Cultura, Irene Larraza, en la sesión plenaria del Foro Europeo de la Cultura que tuvo lugar en Milán el 12 de diciembre. Un encuentro que, cada dos años, reúne a actores clave del sector cultural y creativo europeo para debatir sobre políticas e iniciativas de la Unión Europea en la materia y reforzar la cooperación cultural europea, así como la diplomacia cultural.

Por otra parte, como miembro asociado de EUNIC Brussels (European Union National Institutes for Culture), Etxepare ha participado en proyectos transnacionales que conectan cultura y sociedad (Fête de la BD, Transpoesie, etc.), así como en la definición y aplicación de la política de cooperación y diplomacia cultural europea.

El Instituto es, además, impulsor del proyecto Aquitaine.eus, que se desarrolla en el marco de la Euroregión Nouvelle Aquitaine-Euskadi-Navarra. Esta iniciativa que lidera junto con Euskal Kultur Erakundea (EKE), tiene como fin fomentar las relaciones y la cooperación transfronteriza entre creadores y agentes culturales de Nouvelle Aquitaine y Euskadi para dar visibilidad a artistas –tanto de Iparralde como de Hegoalde– en esta región francesa.

En definitiva, durante el año 2017 el Instituto ha seguido trabajando como embajador de la cultura vasca, fiel a su compromiso de difundir y dar a conocer el euskera y la creación vasca. En las siguientes páginas se detalla la labor realizada a lo largo del año.

# Aurkibidea

## Índice

---



01	Etxepare Euskal Institutua Instituto Vasco Etxepare	10
02	Literatura eta itzulpengintza Literatura y traducción	11
03	Arte eszenikoak Artes escénicas	22
04	Zinea eta ikus-entzunezkoak Cine y audiovisuales	34
05	Musika Música	43
06	Arte plastikoak eta ikusizkoak Artes plásticas y visuales	57
07	Beste kultur jarduera batzuk Otras actividades culturales	62
08	Euskara eta unibertsitateak Euskera y universidades	65
09	Komunikazioa Comunicación	81
10	Finantza txostena Informe financiero	86
11	Gobernantza Gobernanza	88

# 01

## Etxepare Euskal Institutua Instituto Vasco Etxepare

---

1545ean Bernart Etxeparek *Linguae Vasconum Primitiae* liburua idatzi zuen, euskaraz inprimatu den lehenbizikoa, gure hizkuntza mundura zabaltzeko asmoz. Desira hori betetzeko Eusko Jaurlaritzak Etxepare Euskal Institutua jarri zuen martxan 2010. urtean.

Hizkuntzak zabalik dauden leihoak dira, unibertsoaren berezko ikuspegia eskaintzen dutenak. Eta kultura, ezinbesteko tresna herri baten izana ezagutarazteko. Egungo ingurune eleanitz eta globalizatuan euskarak eta euskal kulturak kanpora ere egin behar dute salto eta merezi duten tokian kokatu, mundu mailan.

Euskara eta euskal kultura mundura hedatzeko konpromisoari helduz, Etxepare Euskal Institutua euskal kultur diplomaziaren burua da. Euskararen eta euskal kulturaren inguruko ezagutza eta ikerketa nazioartean bultzatzea helburu duten programak lantzen ditu, euskal sortzaileen eta haien lanen nazioartekotzea sustatzen du eta beste hizkuntza eta komunitateekin elkarguneak sortzeari bide ematen dio.

En 1545 Bernart Etxepare escribió la obra *Linguae Vasconum Primitiae*, el primer libro impreso en lengua vasca, con el objeto de dar a conocer el euskera. Con el afán de cumplir con ese deseo, el Gobierno Vasco puso en marcha en 2010 el Instituto Vasco Etxepare.

Las lenguas son ventanas abiertas, capaces de ofrecer una perspectiva propia del universo. Y la cultura, una herramienta imprescindible para dar a conocer la identidad de nuestro pueblo. En el actual marco multilingüe y global, el euskera y la cultura vasca deben impulsarse al exterior y situarse en el nivel internacional que se merecen.

Fiel al compromiso de impulsar en el mundo el euskera y la cultura vasca, el Instituto Vasco Etxepare lidera la diplomacia cultural del País Vasco, desarrolla programas para el conocimiento y la investigación de la lengua y la cultura vasca, fomenta la internacionalización de las y los artistas y creadores vascos y promueve espacios de interacción con otras lenguas y comunidades.

## 02

# Literatura eta itzulpengintza

## Literatura y traducción



Euskal literatura-sorkuntza ezagutzera emateko, euskal sortzaile eta lanen zabalkundea sustatzen du Institutuak. Helburu horrekin egitasmo zehatzak burutzen ditu, bai bertako kultur eragileekin elkarlanean, baita euskararen eremu geografikotik kanpoko eragileekin ere. Institutuak euskal idazleen parte hartzea kudeatzen du nazioarteko azoka eta jaialdi garrantzitsuenetako programa ofizialetan eta euskal erakundeak eta elkarteak babesten ditu nazioartean euskal literaturaren ordezkartza lanak egin ditzaten. Nazioarteko erakundeekiko harremanak ere estutzen ditu, elkartruke programak sustatzeko. Bestetik, itzulpenak sustatzen ditu, eta horretarako diru-laguntzak eman eta itzulpen sari bat bultzatzen du.

Con el fin de divulgar la creación literaria vasca, el Instituto Vasco Etxepare fomenta la difusión de obras y autores/as. Para ello, lleva a cabo una serie de proyectos específicos, tanto en colaboración con los agentes culturales locales, como con agentes externos al ámbito geográfico del euskera. En este sentido, el Instituto gestiona la participación de escritores/as vascos/as en ferias internacionales y en los programas oficiales de los festivales más renombrados; asimismo, ofrece apoyo a instituciones y a asociaciones que representan la literatura vasca en el ámbito internacional. El Instituto crea lazos con instituciones internacionales con la mirada puesta en el fomento de programas de intercambio. Por otra parte, fomenta la traducción de obras, para lo que se destinan subvenciones, y organiza un premio de traducción.

## Literatura lanen itzulpenak sustatzea Fomento de la traducción de obras literarias

Itzulpenak sustatzearen helburua da euskal literaturak nazioartera salto egin dezan baliabideak eskaintzea. Horretarako zubi dira itzulpenak. Itzulpenik gabe nekez izango dute nazioarteko hedapena euskal idazleek eta horien lanek.

El fomento de la traducción tiene como fin ofrecer los medios para que la literatura en euskera pueda dar el salto al ámbito internacional. En este sentido, la traducción constituye una piedra angular, ya que sin ella sería imposible que los escritores/as vascos/as y sus obras tengan una difusión internacional.

### Literatura lanen itzulpenak egiteko diru-laguntzak

Etxepare Euskal Institutuak jatorriz euskaraz idatzitako lanen itzulpenak laguntzen ditu diruz, baita gaztelaniaz idatzitako idazleen lanenak ere, idazle horiek EAEn erroldatutakoak badira. 2017. urtean 39.000 €ko aurrekontua izan du horretarako eta 14 diru-laguntza eman ditu. Denak izan dira jatorriz euskaraz idatzitakoak, baina horietatik hiru gaztelaniatik abiatuta itzuli dira, gaztelania zubi hizkuntza gisa hartuta.

### Subvenciones para la traducción de obras literarias

El Instituto Vasco Etxepare subvenciona la traducción de obras originalmente escritas en euskera, así como de obras en castellano escritas por autores de la CAV a otras lenguas. En 2017 se han destinado a este fin 39.000 € y se han otorgado 14 subvenciones. Todas las obras han sido escritas en euskera originalmente; no obstante, en el caso de tres de ellas se ha partido de la versión en castellano para abordar su traducción.

	2017	2016	2015	2014	2013	2012
<b>Eskatutako diru-laguntzak</b> <b>Ayudas solicitadas</b>	16	29	31	28	21	42
<b>Emandako diru-laguntzak</b> <b>Ayudas otorgadas</b>	14	17	18	16	17	24
<b>Estaldura maila</b> <b>Nivel de cobertura</b>	%87,50	%58,62	%58,06	%57,14	%80,95	%57,14
<b>Eskatutako zenbatekoa</b> <b>Importe solicitado</b>	43.981 €	70.594 €	111.819 €	64.015 €	62.215 €	91.265 €
<b>Emandako zenbatekoa</b> <b>Importe otorgado</b>	23.031 €	39.000 €	39.000 €	35.974 €	39.000 €	44.000 €
<b>Aurrekontua</b> <b>Presupuesto</b>	39.000 €	39.000 €	39.000 €	39.000 €	39.000 €	47.000 €

### Euskarazko proiektuak

### Proyectos en euskera

Euskarazko proiektuetarako eskatutako diru-laguntzak <i>Ayudas solicitadas para proyectos en euskera</i>	Euskarazko proiektuetarako emandako diru-laguntzak <i>Ayudas concedidas para proyectos en euskera</i>	Euskarazko proiektuen portzentajea <i>Porcentaje de proyectos en euskera</i>	Euskarazko proiektuen estaldura maila <i>Nivel de cobertura a proyectos en euskera</i>
16	14	%100	%87,5


### Hizkuntza

### Idioma

JATORRIZKO LANAREN HIZKUNTZA IDIOMA ORIGINAL DE LA OBRA

ITZULPENAREN SORBURU HIZKUNTZA LENGUA DE PARTIDA DE LA TRADUCCIÓN

ITZULPENAREN XEDE HIZKUNTZA LENGUA DE DESTINO DE LA TRADUCCIÓN



### Itzulitako lanen estiloa

### Género de las obras traducidas

Eleberria <i>Novela</i>	Narrazioa <i>Narrativa</i>	Poesia <i>Poesía</i>	Beste bat <i>Otros</i>
9	2	2	1

## Itzultzaile Berriak


Donostia 2016 Europako Kultur Hiruburuarekin eta EIZIErekin (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte) elkarlanean gauzatutako egitasmo honen helburua euskarazko itzultzaileen prestakuntza sustatzea da, euskaraz idatzitako lanen hedapena laguntzeko. 2016an hasitako proiektuaren jarraipen gisa, Bernardo Atxagaren *Xola* bildumako hiru liburu argitaratu dira 2017an, eslovenierara itzulita.

Halaber, Etxepareren laguntzarekin EIZIEko bi ordezkari Eslovenian izan dira euskal kulturaren zabalkundeari eta itzulpengintzari buruzko solasaldietan Ljubljanan eta Nova Gorican. Barbara Pregelj esloveniar itzultzaile, argitaratzaile eta irakaslea, Itzultzaile Berriak programaren baitan Euskal Herrian sei hilabeteko egonaldi luzea egin zuena, izan dute bidelagun. Itzultzaile berak antolatuta, Juan Kruz Igerabide idazleak bere zenbait lanen aurkezpena egin du Eslovenian.

## Programa Itzultzaile Berriak

El objetivo de este programa, llevado a cabo en colaboración con Donostia / San Sebastián 2016 Capital Europea de la Cultura y EIZIE (Asociación de Traductores, Correctores e Intérpretes en Lengua Vasca), ha sido contribuir a la formación de traductores y traductoras en euskera con la mirada puesta en la difusión en Europa de obras literarias escritas originalmente en esta lengua. Como continuación del proyecto iniciado en 2016, este año se han publicado tres libros de la colección *Xola* de Bernardo Atxaga traducidos al esloveno.

Asimismo, dos representantes de EIZIE han viajado a las localidades eslovenas de Ljubljana y Nova Gorica para participar en varios debates sobre la difusión de la cultura vasca y la traducción, gracias al apoyo del Instituto Etxepare. La traductora, editora y profesora eslovena Barbara Pregelj, que ya había realizado una estancia de seis meses en el País Vasco en el marco del programa Itzultzaile Berriak, ha hecho las veces de anfitriona. En un evento organizado por la misma traductora, el escritor Juan Kruz Igerabide ha presentado varios trabajos en Eslovenia.





## Etxepare – Laboral Kutxa Itzulpen saria



2015. urtean sortutako itzulpen sari honek euskaraz idatzitako literatura lanen itzulpenak sustatzea eta lan horien aitopen publikoa bultzatzea ditu helburu. Sariaren irabazlea aukeratzekoan itzulpenaren kalitatea eta argitaletxearen promozio plana hartzen dira aintzakotzat. Saritutako argitaletxe eta itzultzaileak 4.000 € jasotzen dituzte, eta 2.000 € gehiago saria jasotzera etortzeko edota liburuaren promoziorako. 2017. urteko irabazleak Ukrainako Anetta Antonenko argitaletxea eta Yaroslav Guvarev itzultzailea izan dira, Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* lanaren itzulpenarekin.

## Premio de Traducción Etxepare – Laboral Kutxa

*Behi euskaldun baten memoriak* eleberriaren ukrainerazko itzulpena izan da saritua

---

La ganadora de este año ha sido la traducción al ucraniano de la novela *Behi euskaldun baten memoriak*

El Premio de Traducción Etxepare – Laboral Kutxa, creado en 2015, tiene como fin fomentar la traducción y publicación de obras literarias escritas originalmente en euskera, así como su reconocimiento público. A la hora de otorgar el premio se valora la calidad de la traducción y el plan de promoción de la editorial. La editorial y traductor/a galardonados/as reciben un premio de 4.000 €, así como una ayuda adicional de 2.000 € para asistir a la entrega del Premio y/o para la promoción del libro. El premio de la edición de 2017 ha recaído en la editorial ucraniana Anetta Antonenko, por la traducción de la obra *Behi euskaldun baten memoriak* (Memorias de una vaca) de Bernardo Atxaga, realizada por Yaroslav Guvarev.

## Sortzaileen eta lanen zabalkundea sustatzea Fomento de la difusión de autores/as y obras

Etxeparek euskal sortzaileen eta lanen presentzia sustatzen du mundu osoko azoka eta jaialdietan euskal literaturari ikusgarritasuna emateko helburuarekin.

Etxepare fomenta la presencia de autores/as vascos/as y sus obras en las programaciones de ferias y festivales de todo el mundo con el fin dar visibilidad a la literatura vasca.

### Bidaia-poltsak

Etxeparek urtero bidaia-poltsak ematen dizkie euskal idazle, ilustratzaile, itzultzaile eta editoreei liburuen aurkezpen, hitzaldi edo antzeko ekintzen bidez nazioarteko ekitaldietan parte har dezaten, betiere euskal kulturaren ordezkari bezala. Aurten 16 diru-laguntza eman dira orotara, 7.450 €.

### Bolsas de viaje

Etxepare otorga anualmente bolsas de viaje para que escritores/as, ilustradores/as y editores/as vascos/as puedan participar en eventos internacionales presentando libros, ofreciendo conferencias o actividades similares como representantes de la cultura vasca. Este año se han concedido 14 subvenciones por valor total de 7.450 €.

Emandako bidaia-poltsen **%39** literaturarako izan dira

El **39%** de las bolsas de viaje otorgadas han sido para literatura



	Eskatutako diru-laguntzak Ayudas solicitadas	Emandako diru-laguntzak Ayudas otorgadas	Portzentajea Porcentaje	Estaldura maila Nivel de cobertura	Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado	Emandako zenbatekoa Importe otorgado	Aurrekontua Presupuesto
<b>Literaturako bidaia-poltsak</b> Bolsas de viaje literatura	20	16	%39	%80	10.789 €	7.450 €	-
<b>Zineko bidaia-poltsak</b> Bolsas de viaje cine	33	25	%61	%75,76	15.514 €	10.569 €	-
<b>GUZTIRA TOTAL</b>	53	41	-	%77,88	26.303 €	18.019 €	20.000 €

**Euskararen presentzia bidaia-poltsen bidez lagundutako proiektuetan****Presencia del euskera en proyectos subvencionados mediante bolsas de viaje**

	Eskatutako diru-laguntzak Ayudas solicitadas	Emandako diru-laguntzak Ayudas otorgadas	Euskarazko proiektuen portzentajea Porcentaje de proyectos en euskera	Euskarazko proiektuen estaldura maila Nivel de cobertura de proyectos en euskera
<b>Literaturako bidaia-poltsak</b> Bolsas de viaje literatura	10	7	%43,75	%70
<b>Zineko bidaia-poltsak</b> Bolsas de viaje cine	2	2	%8	%100
<b>GUZTIRA TOTAL</b>	12	9	%21,9	

**Bidaia-poltsen bidez lagundutako joan-etorrien banaketa geografikoa****Distribución geográfica de los desplazamientos apoyados mediante bolsas de viaje**

Estatua Estado	Frantzia Francia	Europa Europa	Ipar Amerika Norteamérica	Hego Amerika, Erdialdeko Amerika eta Karibe Sudamérica, Centroamérica y Caribe	Asia eta Ozeania Asia y Oceanía	Afrika África	GUZTIRA TOTAL
9	0	1	1	4	0	1	16





## Azokak eta jaialdiak Ferias y festivales



### **The Festival of the European Short Story (Zagreb eta Rijeka, Kroazia)**

Maiatzak 28 – Ekainak 2 / Mayo 28 – Junio 2  
Eider Rodriguez

### **Thessaloniki International Book Fair (Tesalonika, Grezia)**

Maiatzak 11–14 / Mayo 11–14  
Arantxa Urretabizkaia

### **Biennial of Illustrations Bratislava (Bratislava, Eslovakia)\***

Irailak 2 – Urriak 5 / Septiembre 2 – Octubre 5  
Leire Salaberria

*\*Galtzagorri Elkarte, Etxepare Euskal Institutuaren laguntzarekin.*

### **III Jornades de poesia en llengües peninsulars (Santa Coloma de Gramenet)**

Irailak 15–16 / Septiembre 15–16  
Bernardo Atxaga

### **Bokmässan Göteborg (Göteborg, Suedia)**

Irailak 28 – Urriak 1 / Septiembre 28 – Octubre 1  
Ixiar Rozas

### **International Short Story Festival (Wroclaw, Polonia)**

Urriak 5–8 / Octubre 5–8  
Arantxa Iturbe

### **Miami Book Fair (Miami, AEB)**

Azaroak 12–19 / Noviembre 12–19  
Yolanda Arrieta

### **FIL Guadalajara (Guadalajara, Mexiko)**

Azaroak 26 – Abenduak 3 /  
Noviembre 26 – Diciembre 3  
Kirmen Uribe

Halaber, Institutuak presentzia izan du **Frankfurteko Liburu Azokan** eta **Bolognako Nazioarteko Haur eta Gazte Liburu Azokan** EAEko editore elkarteekin batera.

Asimismo, el Instituto ha estado presente en la **Feria del Libro de Frankfurt** así como en la **Feria Internacional del Libro Infantil y Juvenil de Bolonia** junto con las asociaciones de editores de la CAV.

**Nazioarteko azoka eta jaialdietan izandako presentziaren banaketa geografikoa**

**Distribución geográfica de la presencia en ferias y festivales internacionales**

Estatua Estado	Frantzia Francia	Europa Europa	Ipar Amerika Norteamérica	Hego Amerika, Erdialdeko Amerika eta Karibe Sudamérica, Centroamérica y Caribe	Asia eta Ozeania Asia y Oceanía	Afrika África	GUZTIRA TOTAL
1	0	7	2	0	0	0	10



**10** joan-etorri  
egin dira **10**  
herrialdetara

Se han realizado **10**  
desplazamientos a  
**10** países diferentes

## Beste egitasmo batzuk

### Itzulpen poetikoko mintegia

Otsailak 4-7

Lau euskal poeta, bi poeta katalan eta zazpi itzulzailek hartu dute parte, Gasteizen, itzulpengintza topaketa honetan: Esteve Plantada, Gràcia Jiménez, Itxaro Borda, Leire Bilbao, Juan Kruz Igerabide, Beñat Sarasola, Gerardo Markuleta, Elizabete Manterola, Joannes Jauregi, Aritz Galarraga eta Josu Zabaleta. Amaia Apalauzak gidatu du mintegia. Honekin batera, irakurraldi poetikoa egin da UPV/EHUren Letren Fakultatean. Institució de les Lletres Catalanes erakundearekin lankidetzan egin da.

## Otras iniciativas

### Taller de traducción poética

Febrero 4-7

En este encuentro de traducción, celebrado en Vitoria-Gasteiz, han participado cuatro poetas vascos, dos catalanes y siete traductores, entre los cuales están Esteve Plantada, Gràcia Jiménez, Itxaro Borda, Leire Bilbao, Juan Kruz Igerabide, Beñat Sarasola, Gerardo Markuleta, Elizabete Manterola, Joannes Jauregi, Aritz Galarraga y Josu Zabaleta. El taller ha contado con la coordinación de Amaia Apalauza. Asimismo, se ha realizado una lectura poética en la Facultad de Letras de la UPV/EHU. El evento se ha llevado a cabo en colaboración con la Institució de les Lletres Catalanes.

### **International Writing Program**

Abuztuak 19 – Irailak 30

Kirmen Uribe idazleak Iowako Unibertsitateko International Writing Program-en (IWP) egonaldia egin du Etxepare Institutuaren babesaz. Munduko literatura egonaldi zaharrena eta prestigiotsuena da IWP. Uribe da programa honetan parte hartu duen lehen euskal idazlea.

### **Best European Fiction 2018**

Etxeparek bultzatuta, *Best European Fiction* antologian Xabier Montoiaren lan bat argitaratu da. Antologia honek ingelesez itzultako europar idazleen lanak jasotzen ditu nazioarteko publikoari egile berriak ezagutzera emateko. Argitaratutako lana *My Mother Calls Me a Pirate* izan da.

## **Nazioarteko foroetan presentzia**

Etxepare Institutuak Euskal PEN Klubarekin duen hitzarmenaren testuinguruan ondorengo egitasmoetan euskal ordezkarien parte-hartzea lagundu du euskararen eremu geografikotik kanpo euskal literatura ezagutzera emateko:

#### **Translation and Linguistic Rights Committee**

**(Bengaluru, India)**

Apirilak 26–29

#### **PEN International Congress**

**(Lviv, Ukraina)**

Irailak 18–21

#### **Basque Writing 15 eta 16**

Euskal PEN Klubak euskaraz eta ingelesez argitaratzen duen euskara eta euskal literatura aldizkariaren 15 eta 16 zenbakiak eta horien zabalkundea lagundu ditu.

Halaber, Etxepare Institutuarekin sinatutako hitzarmenaren bidez Galtzagorri Elkarteak euskal haur eta gazte literaturaren ordezkari lanak burutu ditu UNESCOren IBBY (International Board on Books for Young People) sarean. Munduko 70 herrialdetako haur literaturak daude bertan ordezkaturik.

### **International Writing Program**

Agosto 19 – Septiembre 30

El escritor Kirmen Uribe ha participado en el International Writing Program (IWP) de la Universidad de Iowa gracias al apoyo del Instituto Vasco Etxepare. Ha sido el primer escritor vasco en participar en el IWP, considerada la residencia literaria más antigua y prestigiosa a nivel mundial.

### **Best European Fiction 2018**

Etxepare ha impulsado la publicación de una obra de Xabier Montoia en *Best European Fiction*, antología que recopila trabajos traducidos al inglés de escritores europeos para dar a conocer nuevos autores al público internacional. La obra publicada es *My Mother Calls Me a Pirate*.

## **Presencia en foros internacionales**

El Instituto Vasco Etxepare ha subvencionado las siguientes actividades de Euskal PEN Kluba (Basque PEN) con el fin de dar a conocer la literatura vasca fuera del ámbito geográfico del euskera:

#### **Translation and Linguistic Rights Committee**

**(Bengaluru, India)**

26–29 de abril

#### **PEN International Congress**

**(Lviv, Ucrania)**

18–21 de septiembre

#### **Basque Writing 15 y 16**

Publicación de los números 15 y 16 de la revista especializada en lengua y literatura vasca, editada en euskera e inglés por el club Basque PEN.

Asimismo, gracias al convenio suscrito con el Instituto Vasco Etxepare, Galtzagorri Elkarte ha representado la literatura infantil y juvenil vasca en la red IBBY (International Board on Books for Young People) de la UNESCO. Esta red representa la literatura infantil de 70 países de todo el mundo.



## Europar proiektuak Proyectos europeos

EUNICen (Europako Batasuneko Kultura Institutu Nazionalen sarea) Bruselako klusterreko kide elkartu bezala Etxeparek hainbat proiektutan hartu du parte Europako beste herrialde batzuetako kultura institutuekin elkarlanean.

Como miembro asociado del clúster de Bruselas de la red EUNIC (red de institutos nacionales de la cultura de la Unión Europea) Etxepare ha participado en varios proyectos en colaboración con otros institutos nacionales de la cultura pertenecientes a la red.

### Fête de la BD / Strip Feest ★ (Brusela, Belgika)

Irailak 1–3

Euskal komikia laugarren aldiz izan da Bruselako komiki festibalean, nazioarte mailan dagoen garrantzitsuenetakoa, EUNICeko beste kide batzuekin batera. Euskal komikiari zuzendutako guneko propio bat izateaz gain, Ainara Azpiazu «Axi» eta Iñaki Martiarena «Mattin» marrazkilariek workshop bana gidatu dute bertan.

### Fête de la BD / Strip Feest ★ (Bruselas, Bélgica)

Septiembre 1–3

El cómic vasco ha participado por cuarta vez en el Festival del Cómic de Bruselas, una de las más importantes del panorama internacional, en asociación con otros miembros de EUNIC. Además de contar con un espacio específico dedicado al cómic vasco, los ilustradores Ainara Azpiazu «Axi» e Iñaki Martiarena «Mattin» han ofrecido sendos talleres en el marco del festival.

### Transpoesie ★ (Brusela, Belgika)

Irailak 26–Azaroak 9

EUNIC Brussels-ek Belgikako hiriburuan antolatzen duen Transpoesie jaialdian parte hartu du Harkaitz Cano idazleak. Aipatutako jaialdiak Europako poetak biltzen ditu euren lanak aurkeztu eta errezitatu ditzaten.

### Transpoesie ★ (Bruselas, Bélgica)

Septiembre 26 – Noviembre 9

El escritor Harkaitz Cano ha participado en el festival Transpoesie, organizado por EUNIC Brussels en la capital belga y que reúne a poetas europeos/as para presentar y recitar sus obras.





# 03

## Arte eszenikoak Artes escénicas

---

Etxepare Euskal Institutuak Euskal Herriko arte eszenikoek munduan duten ikusgaitasuna handitzea bilatzen du. Helburu horrekin Euskal Herriko dantza eta antzerki ekoizpenen nazioarteko mugikortasuna sustatzen du diru-laguntzen bidez, bertako eta atzerriko erakundeekin elkarlana bideratzen du, eta programazio garrantzitsuetan Euskal Leihoak sortzen ditu. Horrez gain, industria ikuspegi batetik, katalogoak egiten laguntzen du, euskal konpainiek nazioarteko azoketan parte har dezaten diru-laguntzak ematen ditu eta horietako azoka batzuetan euskal presentziaren arduraduna da, besteak beste.

El Instituto Vasco Etxepare busca reforzar la visibilidad de las artes escénicas vascas en el mundo. Con ese objetivo promueve la movilidad internacional de producciones de danza y teatro, fomenta la colaboración con entidades locales y extranjeras, y contribuye a la creación de Ventanas Vascas en programaciones destacadas. El Instituto colabora, además, en la elaboración de catálogos, subvenciona la participación de compañías vascas en ferias profesionales internacionales y es responsable de la presencia vasca en varias de esas ferias.

## Sortzaileen eta lanen zabalkundea sustatzea

### Fomento de la difusión de creadores/as y obras

Euskal sortzaileen eta lanen ikusgarritasuna sustatzeko Etxepareren ildoetako bat atzerrian Euskal Herrian eginiko arte eszenikoetako proposamenen erakustaldiak bultzatzea da. Helburu horrekin jaialdi eta zentro ezberdinekin lankidetzak hitzarmenak sinatu ditu euren programazioetan euskal sorkuntzentzat espazioak berma ditzaten. Era beran, euskal konpainiek dirulaguntzak jaso dituzte nazioarteko biretan eta antzerki denboraldietan parte hartzeko.

Una de las vías para dar visibilidad a creadores/as y obras es apoyar la exhibición, fuera del ámbito geográfico del euskera, de las propuestas escénicas creadas en el País Vasco. Con ese fin, se han suscrito diversos acuerdos de colaboración con festivales y centros para garantizar espacios dedicados a creaciones vascas en sus programaciones. Asimismo, se han concedido ayudas a compañías vascas para la realización de giras internacionales y temporadas de teatro.

#### Antzoki eta jaialdietan presentzia

Kultur eragile ezberdinekin adostutako akordioen bidez, 2017. urtean euskal ekoizpenak ondorengo jaialdi eta zentroetan ikusi ahal izan dira:

##### Centro Dramático Nacional (Madril)

Urtarrilak 18 – Otsailak 19

Borja Ortiz de Gondraren *Los Gondra (una historia vasca)* Madrilen eskaini da Etxepare Euskal Institutuaren laguntzarekin. Gondra familiaren gorabeherak ardatz hartuta euskal gizartearen azken 100 urteetako historia islatzen du antzezlanak.

Halaber, otsailaren 13an *Asuntos de Familia* izenburupean Borja Ortiz de Gondra antzerkigilea eta Kirmen Uribe idazlea *Los Gondra (una historia vasca)* antzezlanak jorrotzen dituen gaien inguruan aritu dira Madrilen CDNk antolatzen duen Los lunes con voz topaketan.

#### Presencia en teatros y festivales

Gracias a los acuerdos alcanzados con diversos agentes culturales, en el año 2017 se han podido ver creaciones vascas en los siguientes festivales y centros:

##### Centro Dramático Nacional (Madril)

Enero 18 – Febrero 19

Interpretación en Madrid de la obra de teatro *Los Gondra (una historia vasca)*, del artista Borja Ortiz de Gondra, con el apoyo del Instituto Vasco Etxepare. Esta obra refleja la historia de la sociedad vasca de los últimos 100 años, partiendo de las vicisitudes de la familia Gondra.

Asimismo, el 13 de febrero, bajo el título *Asuntos de Familia*, el dramaturgo Borja Ortiz de Gondra y el escritor Kirmen Uribe abordaron los temas que trata la obra *Los Gondra (una historia vasca)*, en el marco de los encuentros titulados Los lunes con voz, que el CDN organiza en Madrid.

### Sismògraf (Olot)

Apirilak 20–23

Olot hirian (Girona) bederatzigarrenez ospatu den dantza jaialdiak Euskal Herrian eta bertako dantzan arreta jarri duen sail berezia sortu du 2017an, Etxepare Euskal Institutuaren babesaz: Eurpció Basca. Hiru euskal konpainiaren lanak eskaini dira: *The Endgame* (Løkke / Olatz de Andrés), *Barbecho* (Natxo Montero\_danza) eta *Lur Away* (Compañía Sra. Polaroiska). Brodas Bros eta Kukai Dantzaren *Topa* ikuskizuna ere egon da ikusgai. Halaber, Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteak (ADDE) euskal dantzaren ekosistema aurkeztu du sektoreko eragileen aurrean.

### Sismògraf (Olot)

20–23 de abril

El festival de danza de Olot (Girona), que celebra su novena edición, ha dedicado en 2017 una sección especial al País Vasco y a su danza, con el apoyo del Instituto Vasco Etxepare: Erupció Basca. Tres compañías vascas han participado con sus actuaciones: *The Endgame* (Løkke / Olatz de Andrés), *Barbecho* (Natxo Montero\_danza) y *Lur Away* (Compañía Sra. Polaroiska). El festival ha contado también con la participación de Brodas Bros y Kukai Dantza, con la obra *Topa*. Asimismo, la Asociación de Profesionales de la Danza del País Vasco (ADDE) ha presentado el ecosistema de la danza vasca ante los agentes del sector.

### Fest'Arts ★ (Libourne, Frantzia)

Abuztuak 3–5

2012. urteaz geroztik, Etxepare Euskal Institutuak Fest'Arts jaialdiarekin elkarlanean Euskadi à Libourne programa ahalbidetzen du, Hego Euskal Herriko konpainiek jaialdian ikuskizunak eskaini ditzaten. 2017an, bi euskal konpainia izan dira euskal leihon honetan: KpiqA Cpllective eta Proyecto Larrua. Halaber, Euskal Herriko eta Akitaniako ikusle eta profesionalen arteko topaketa burutu da.

### Fest'Arts ★ (Libourne, Francia)

3–5 de agosto

